

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak pizgarri fiskalak emango dizkie sozialki konprometitutako proiektuei

Barcina Lehendakariak lehen zigilua 'la Caixa'-ri eman dio egiten duen gizarte-ekintzaren aitortpen modura

Lunes, 04 de marzo de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gaur iragarri du Nafarroako Gobernuak sozialki konprometitutako proiektuei pizgarri fiskalak emango dizkiela, Foru Komunitatean egoitza duten gizarte-zerbitzuen arloko elkarte eta fundazioek garatutakoei.

Foru-lege baten bidez finkatuko diren pizgarri horiek kuotaren % 40ko kenkarira helduko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ), eta % 20ra Sozietate Zergan, bi kasuetan oinarri likidagarriaren % 30eko mugarekin. Gainera, Sozietate Zergaren zerga-oinarriaren % 100eko kenkaria izango dira.

'Comprometido Socialmente' zigiluarekin aitortutako proiektuak egikaritzeko ekarpen ekonomikoak egiten dituzten hiritar, enpresa eta erakundeei emango zaizkie.

Barcina Lehendakariak gaur 'la Caixa'-ri lehen ziurtagiria eman dio egiten duen gizarte-ekintzaren aitortpen modura. Zigilua erakundearen Nafarroa, Aragoi eta Errioxako lurralde-zuzendari Raul Marquetak jaso du.

Zigiluaren helburua bikoitza da. Alde batetik, gizarte-zerbitzuen arloko zenbait proiekturen garrantzia aitortzea Nafarroako herritar guztientzat eta, bestetik, haiek egikaritzeko ekarpen ekonomikoak sustatzea.

Ekimena sektoreko elkarrekin adostu da, krisi-garai honetan elkarte horietako zenbaitek bizi dituzten zailtasun ekonomikoak egiaztatu ondoren.

Horrekin finantzaketa-era berri bat finkatzen da, eta haren helburua legez bermatutako laguntzetatik at dauden kolektiboen beharrek betetzea da; haien artean daude, esaterako, gizarteratzeko errenta edo mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzak (bermatuta).

Hortaz, Gizarte Politiken Departamentuaren arloan lan-ildo berri bat da, eta tartean sartzan dira gizarte guztia nahiz gizarte-proiektuetan lan



egiten duten sektore guztiak.

Zigilua nola lortu

Aitorpen hori lortzeko, urtero deialdia sortuko da, eta bertara gizarte-zerbitzuen arloko irabazi-asmorik gabeko erakundeak aurkeztu ahal izango dira, egoitza soziala Nafarroan dutenak edo Foru Komunitatean ordezkaritza iraunkor bat dutenak gutxienez duela bi urtetik, zerga-betebeharrak egunean izanik eta inolako debekutan sartuta egon gabe.

Zigilua ematea eskatzen duten proiektuak proiektu sozialak izan beharko dira, Nafarroatik antolatutakoak eta pertsonen oinarrizko eta premiazko beharrei zerbitzuak nahiz laguntzak emateko bideratutakoak. Ez dira onartuko honako honetan oinarritzen diren proiektuak: arlo orokorreko gizarte-zerbitzuen sailak bermatutako prestazio gisa aurreikusitako jarduerak egitea.

Halaber, proiektuek kudeaketako eraginkortasun, gardentasun eta kalitateko baldintzak bete beharko dituzte, 2013an egikaritzen hasi beharko dira eta hainbat urtetarako izaera izan ahalko dute.

Honako hauei zuzendutako programek lekua izango dute: drogazaleei, gizarte-baztertuei, gurasobakarreko familiei, familia ugarietara, gatazka-egoeran dauden familiei, gatazkan eta gizarte-zailtasuneko adingabeei, babesik gabeko egoeran dauden espainiar nazionalitateko adingabeei, inoren laguntzarik ez duten atzerriko adingabeei, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei, gutxiengo etnikoek, presoek, preso ohiek eta menpeko sozialei, adinekoei, buruko gaixotasun larria duten pertsonen eta ezintasunen bat duten pertsonen.

Programaz baliatuko ahalko dira ere: prestaziorik gabeko langabeei arreta emateko programak, eta herrialde azpigaratuetako behar handieneko herrien aldeko nazioarteko garapenerako lankidetzakoak, bereziki gerra-gatazkaren bat jasaten ari diren edo jasan duten herrialdeena edo ezbehar naturalek gogor kaltetutakoena.

Programaz baliatu ahalko dira ere, Autonomia Pertsonalaren Legea garatzeko laguntza-programak, eta emakume nahiz gizonen aukera-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapenari laguntzeko programak ere.